

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Programa: 26 ERAKUNDEEN ARTEKO KONPROMISOAK. EAE

Programa: 26 COMPROMISOS INSTITUCIONALES. CAPV

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia onartzen duenak, 2007-2011 aldiari aplikagarri denak, Lurralde Historikoei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearekin bat etorri (LHL), arautzen du erakunde erkideen eta foru aldundien artean banatu beharreko baliabideak itundutako tributuek zehaztuko dituztela, Estatuari ordaindutako kupoa kendu ondoren (abenduaren 28ko 11/2017 Legeak onetsitako 2017-2021 bosturtekorako Euskal Autonomia Erkidegoko Kupoa zehazteko metodologiaren lehen xedapen gehigarrian jasotako finantza konpentsazioekin batera), eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak EAeko plangintza, sustapen eta garapen ekonomikorako politikak gauzatzeari dagokion kopurua (aipatutako legearen 22. artikuluko hirugarren apartatua).

Aipatutako Ekarpenei Legearen azken xedapen bakarrak jasotzen duenez, salbuespen gisa, lege horrek onartzen duen metodologiaren indarraldia igarota, ez bada baliabideen banaketa eta hurrengo ekitaldietarako ekarpenen zehaztapena arautzen duen lege berririk argitaratu, aurreko metodologia oso-osoan aplikatuko da 2012ko eta hurrengo ekitaldietan.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2020ko urriaren 15ean hartutako erabakiak betez, foru aldundiek 2020rako egindako ekarpenen aurrekontua Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko 9.619.129.924 eurokoa izan zen, eta ekarpen koefizienteak honako hauek izan ziren: % 16,22 Arabarako, % 50,29 Bizkairako eta % 33,49 Gipuzkoarako; beraz, Arabako Lurralde Historikorako aurreikusitako aurrekontu zenbatekoa 1.560.222.874 euro da.

I. MEMORIA

La Ley 2/2007, de 23 de marzo, que aprueba la metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aplicable al periodo 2007-2011, establece de conformidad con la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Territorios Históricos (LTH), que los recursos a distribuir entre Instituciones Comunes y Diputaciones Forales vendrán determinados por los tributos concertados una vez deducido el Cupo al Estado (junto con las compensaciones financieras recogidas en la Disposición Adicional Primera de la metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021, aprobada por Ley 11/2017, de 28 de diciembre), así como, en su caso, la cantidad correspondiente a la realización por parte del Gobierno Vasco de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico de la CAPV del artículo 22. tercero de la citada LTH.

La Disposición Final única de la referida Ley de Aportaciones recoge que, excepcionalmente, si transcurrido el plazo de vigencia de la metodología que la misma aprueba, no se hubiera promulgado una nueva ley reguladora de la distribución de recursos y determinación de las aportaciones para los ejercicios siguientes, la metodología anterior será de aplicación en todos sus términos para el ejercicio 2012 y siguientes.

En cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas el 15 de octubre de 2020, el presupuesto de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 2021 fue de 9.619.129.924 euros, siendo los coeficientes de aportación: el 16,22 % para Álava; el 50,29 % para Bizkaia y el 33,49 % para Gipuzkoa; por lo que el importe presupuestariamente previsto para el Territorio Histórico de Álava fue de 1.560.222.874 euros.

2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

Programa: 26 ERAKUNDEEN ARTEKO KONPROMISOAK. EAE

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2022ko otsailaren 14ko bileran, foru aldundiek 2021eko ekitaldirako egindako ekarpenen likidazioa onartu zen, 10.829.753.139 eurokoa, eta horietatik 1.756.585.958 euro Arabako Lurralde Historikoari dagozkio.

Era berean, behin betiko bilketa kontuan hartuta, Lege horren 19. artikuluan aurreikusitako Egokitzapenerako Funts Orokorren zenbatekoa 80.657.964 eurokoa da 2021. urterako. Funts hori Arabako Lurralde Historikoari dagokio oso-osorik.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Programa gauzatzean, egungo esparru juridiko-ekonomikotik eratorritako erakundeen finantza betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak aurreikusi dira.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren jardueri buruzko txostenak egin dira, bai eta aurrekontu finantzaketari eta erakunde arteko finantza fluxuei buruzko azterlanak ere.

EAEko ekarpenak ordaintzeko 6 proposamen egin dira otsailean, apirilean, ekainean, abuztuan, urrian eta azaroan.

Gainera, erakundeen finantza betebeharrak kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko beharrezkoa den dokumentu funtsa eguneratu da.

Halaber, Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren aurrekontuan sartu eta likidatu beharreko zenbatekoa zehaztu da.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Programa: 26 COMPROMISOS INSTITUCIONALES. CAPV

En reunión del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 14 febrero de 2022 se aprobó la liquidación de las aportaciones de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2021, por importe de 10.829.753.139 euros, de los cuales 1.756.585.958 euros corresponden al Territorio Histórico de Álava.

Asimismo, teniendo en cuenta la recaudación definitiva, el importe del Fondo General de Ajuste previsto en el artículo 19 de la citada Ley asciende a 80.657.964 euros para el año 2021. Dicho Fondo corresponde en su totalidad al Territorio Histórico de Álava.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En la ejecución del programa se han contemplado todas las actuaciones necesarias para cumplir las obligaciones financieras Institucionales derivadas del actual marco jurídico-económico.

Se han elaborado informes en relación con las actuaciones del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, y estudios sobre la financiación presupuestaria y flujos financieros interinstitucionales.

Se han efectuado 6 propuestas de pago de las Aportaciones a la C.A.P.V., en los meses de febrero, abril, junio, agosto, octubre y noviembre.

Además, se ha actualizado el fondo documental necesario para la gestión y seguimiento de las obligaciones financieras Institucionales.

También se ha determinado la cantidad a presupuestar y liquidar del Fondo Foral de Financiación Municipal.